
2020ko Jardueren memoria



OSALAN



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de
Seguridad y Salud Laborales



Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2020ko Jardueren memoria

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



Barakaldo, 2021

Lan honen bibliografia-erregistroa OSALANeko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:

https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de OSALAN:

https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of OSALAN

https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Izenburua: Memoria de actividades 2020 / 2020ko Jardueren memoria.

Edizioa: 1., 2021eko uztaila.

Ale-Kopurua: 30 ale.

© Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi/Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazioa
OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales/Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

Argitaratzailea: OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales/Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Camino de la Dinamita, s/n - 48903 Barakaldo (Bizkaia).

Internet: www.OSALAN.euskadi.eus

Fotoconposizioa eta inprimaketa: Imprenta Garcinuño S.L. - Ctra. San Vicente, 13 - 48510-Valle de Trápaga-Trapagaran (Bizkaia).

Lege Gordailua: LG BI - 01190-2021

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
1. SARRERA	9
2. JARDUERAK	11
2.1. Ardatza: Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) Kultura	11
2.1.1. Jarduera-arloa: kontzientziazioa eta sentsibilizazioa	11
2.1.2. Jarduera-arloa: eragileen inplikazioa eta laguntza	14
2.2. Ardatza: Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko jakintza sortu eta hedatzea ..	18
2.2.1. Jarduera-arloa: informazioa	18
2.2.2. Jarduera-arloa: ikerketa	21
2.2.3. Jarduera-arloa: prestakuntza	21
2.2.4. Jarduera-arloa: jakintzaren hedapena	23
2.3. Ardatza: Laneko Arriskuen Prebentzioaren kudeaketa	25
2.3.1. Jarduera-arloa: prebentzio-jardueraren kalitatea	25
2.3.2. Lan-arloa: lan-baldintzen hobekuntza	26
2.3.3. Lan-arloa: Laneko Arriskuen Prebentzioa kudeaketan txertatzea	28
2.4. Ardatza: Administrazio Publikoak	29
2.4.1. Lan-arloa: administrazioen arteko koordinazioa	29
2.4.2. Lan-arloa: erakundeen arteko lankidetzeta	33
2.4.3. Lan-arloa: OSALANen zerbitzuak eta prozesuak	36

AURKEZPENA

Urtero bezala, hemen dugu OSALANen jardueren memoria, Erakundeak jorratzen dituen eremuetan garatutako jardueren berri emateko. Dena dela, ezin dugu ahaztu 2020. urtea erabat baldintzatuta egon zela SARS COV 2 birusak eragindako pandemiaren zioz. Urte hasieran halakorik espero ez genuen arren, martxoan eragin izugarria izan zuen, eta, beraz, gure munduko jarrera sanitario, sozial eta ekonomikoak aldatu egin behar izan ziren, ekintzak ere aldatuta. Halaxe gertatu zaio OSALANi ere.



Lourdes Iscar Reina

Testuinguru horretan, 2020an, prebentzioaren kultura hedatzeko lanean, OSALAN lankidetzan aritu da jardunaldi teknikoak/dibulgaziozkoak antolatzen, argitalpenak egin eta hedatzen, eta arreta berezia jartzen haurren eta gazteengan. Azken horren lekuko, Gaztepreben mikro-webguneari eta Lanbide Heziketako ikasleen arteko prestakuntzari eutsi die, besteak beste.

Bestalde, eragileen inplikazioari esker, herritarrek gero eta gehiago parte hartu dute gure gizarte-sareetan eta erakundearen webgunean, ia 600.000 bisita jaso baititugu gure orrietan; 37 lankidetzat-hitzarmenen jarraipena egin dugu; eta harremanetan izan gara etengabe gizarte-eragileekin, prebentzioko ordezkariekin, prebentzioaren gaineko erakunde espezializatuekin eta enpresekin.

Laneko osasunaren eta segurtasunaren egoera eta bilakaera ikuskatzeko informazioaren arloan, OSALANek hainbat sistema garatu eta kudeatu ditu, besteak beste gutxieneko datu-multzoa, osasun-zerbitzuen fitxategia eta laneko historia klinikoaren ereduaren ezarpena (oraindik ere garapen-fasean); eta, noski, laneko istripu hilgarri guztiak, laneko istripu larriak, oso larriak eta anizkunak ikertu ditu, bai eta laneko istripu arinak ere, baldin eta prebentzioaren ikuspegitik interesgarritzat jo badira.

Prestakuntzaren arloan, Laneko Medikuntzako barneko mediku egoiliarren prebentzioko ordezkarien prestakuntza kudeatu dugu, erizaintzako ikasleek praktikak egin dituzte Bizkaiko Laneko Osasuneko Unitatean, eta prestakuntza eman diegu prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileei.

Bestalde, 2.000 zehaztapen baino gehiago eta 206 txosten egin ditu analisi higienikoen laborategiak.

Era berean, OSALANek 799 lantoki bisitatu ditu horiek irekiko zirelako jakinarazpena jaso ondoren; prebentzio-ekintzaren kalitatea indartu eta lan-baldintzen hobekuntzak sustatu ditu; kudeaketan laneko arriskuen prebentzioa txertatu dadila sustatu du, bereziki prebentzioarekiko behar bezain jarrera irekia ez duten sektoreetako enpresetan eta enpresa txiki eta ertainetan; eta erakundeen arteko lankidetzeta-jarduera izugarria garatu du, aurtan bereziki beharrezkoa izan baita COVID-19aren ziozko pandemiagatik. Horren jarraipen eta kontrol integrala egiteko, OSALANek bere langileetako asko jarri ditu eskuragarri. Halaber, 12 pertsona kontratatu ditu berariaz, kasu positiboen eta harreman estuen jarraipen-lan hori egiteko.

Laneko osasuna eta segurtasuna hobetu asmoz egindako ahaleginaren adierazle bat baino ez da goian azaldutako hori guztia. Edonola ere, lan horrek ez luke emaitzarik izango eremu honetan lan egiten duten eragile guztien konplizitaterik eta konpromisorik gabe. Horiei guztiei, OSALANen aitortpen osoa.

Lourdes Iscar Reina

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendari nagusia

1

● Sarrera

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzako administrazio-erakunde autonomoa da, Lan eta Enplegu Sailera atxikia. Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako jarduerak kudeatu, koordinatu eta sustatzeaz arduratzen da. Barakaldon ditu zerbitzu nagusiak, eta, horrez gain, beste hiru lurralde-zentro. Zentro bakoitza bere dimentsioen eta prebentzioaren arabera antolatzen da, hainbat sektoretan: eraikuntza, lehen sektorea, industria, zerbitzuak, laneko osasuneko unitatea eta administrazioa eta giza baliabideak. 182 profesionalak lan handia egiten dute Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) langileen laneko segurtasuna eta osasuna zaintzeko, urtean 12 milioi euroko aurrekontuarekin.

OSALANek, 2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia sustatzen duen eragile nagusietako bat izanik, estrategia horretan

ezarritako lan-ildoen garapenari jarraikiz ezarri zuen bere jarduera, 2020. urterako. Hartara, hura sortzeko legeak erakundeari esleitzen dizkion eginkizunak betearaztea izan du helburu, bai eta 2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia berrikustean identifikatutako hobekuntzak lortzeko ekintza berriak abiaraztea ere.

Era berean, OSALAN liderra izan da 2021-2026rako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia berria prestatzeko prozesuan.

2020. urtean, COVID-19aren pandemia (SARS-Cov-2 birusak eragindako gaixotasuna) erronka handia izan da gizartearentzat, baita, noski, OSALANentzat ere, haren jarduera guztietan eragin baitu. Izan ere, beharrezkoa izan da pandemia lan-arloan hedatu ez dadin eta kutsatzeak saihestu daitezen lan egitea, eta, halaber, erakundean



bertan neurriak hartzea, bertako langileen artean helburu horiek berak lortzeko. Horretarako, OSALANek lankidetzaz estua izan du osasun-agintariekin, eta bere baliabideetako asko bideratu ditu lan-arloan prebentzioko, prestakuntzako, dibulgazioko eta agerraldien eta harreman zuzenen kudeaketako jarduerak egitera, horiek guztiak

beharrezkoak izan baitira pandemiaren hedapenari aurre egiteko.

Jarraian, OSALANek 2020ko kudeaketa-planeari garatutako arloetan gauzatu dituen ekintzak deskribatuko ditugu; ekintza horiek estrategian ezarritako lau jardueraren barruan sartzen dira.

2015



2020

2. Jarduerak

2.1. Ardatza: Laneko Arriskuen Prebentzioaren kultura

2.1.1. Jarduera-arloa: kontzientziazioa eta sentsibilizazioa

2.1.2. Jarduera-arloa: eragileen inplikazioa eta laguntza

2.1.1. Jarduera-arloa: kontzientziazioa eta sentsibilizazioa

Komunikabideak, web-orria eta gizarte-sareak

OSALANeko zuzendaritzako kideak eta teknikariak komunikabideetan atera dira. Hauek izan dira ateraldi horiek:

- 19 elkarrizketa: 9 irratan, 4 telebistan eta 6 prentsan.
- 17 prentsa-ohar.
- 2 prentsaurreko.
- 7 erreportaje.
- 3 kanpaina:



- «Talde-lana, birusa gelditzeko». Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Egunaren inguruan garatua.
- «Nahasmendu muskuloeskeletikoen prebentzioa». Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Europako Astearen inguruan garatua.
- Kontzientziazio-kanpaina irrati-tartean, bitarteko digitaletako banner-en, prentsa

idatziko oharren eta gizarte-sareetako hedapenaren bidez. Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Munduko Egunaren inguruan garatua.

OSALANen webgunean, Gaztepreben eta Psikopreben mikro-webguneei eutsi diegu.

Gainera, OSALANek gizarte-sareetan egoten jarraitu du: OSALAN eta Itsaspreben kanalak daude Youtuben, Facebooken eta Twitterren.

1. taula: Trafikoari buruzko datuak OSALANen webgunean eta sare sozialetan

Ekitaldia	Saioak	Erabiltzaileak	Zenbat aldiz ikusi den Itsaspreben kanala Youtuben	Zenbat aldiz ikusi den OSALAN kanala Youtuben
2019	265.928	213.087	64.949	201.035
2020	383.368	294.638	43.162	265.305

Prebentzioaren kulturaren gaineko hitzaldiak, jardunaldiak, argitalpenak eta beste dibulgazio-jarduera batzuk:

Erakunde eta instituzioekin lankidetzan, OSALANen dibulgazio-lanaren barruan, 14 hitzaldi eta aurkezpen egin dira 12 jardunaldi tekniko/dibulgaziozotan, askotariko kolektiboek zuzenduta:

- Osasunari eta enpresari lotutako inguruabarren gaineko elkarrizketak: pandemiari eta haren ondorioei aurre egiteko parametro berriak. APDk (Zuzendaritzaren Aurrerapenerako Elkartek) antolatua.
- 25 urte Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legetik: iragana, oraina eta etorkizuna. IMQ Prevención-ek antolatua.

- COVID-19aren aurreko jarduera elikagaien industrian: betebeharrak, eginbeharrak eta behar estrategikoa. AZTIk antolatua.
- Amiantoaren kudeaketaren gaineko kontzientziazioa eta prebentzioa. SGSk antolatua.
- Osasunaren zaintzarako gidaliburuaren aurkezpen-jardunaldia. ASPA Euskadik antolatua.
- Eremu magnetikoen lan-esposizioaren gidaliburuaren aurkezpen-jardunaldia. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalak antolatua.
- Laneko osasuna gaur egun: kudeaketa eta perspektibak. APDk antolatua.
- Laneko arrisku psikosozialen benetako kudeaketaren erronkak: behatokiaren proposamenak COVID osteko garairako. Deustuko Unibertsitateak antolatua.
- Mantentze Eragiketen gaineko Segurtasunaren IX. Jardunaldiak. AEMek (Mantentze Eragiketen Espainiako Elkarteak) antolatua.
- Professional Development Seminar (PDS), Langileen Plataforma Jasotzaile Mugikorrei buruz. IPAFek antolatua.
- Zero ikuspegia: segurtasuna, osasuna eta ongizatea. Fraternidad mutualitateak antolatua.

2020. urtean zehar, OSALANek honako argitalpen hauek egin eta zabaldu ditu:

- «Osasuna zaintzea, laneko arriskuak prebenitzeko: Orientaziorako oinarrizko gida eta gida orokorra».
 - «2019ko Jardueren Memoria».
 - «2020ko kudeaketa-plana» (2. edizio).
 - «Laneko istripuak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2019. urteko txostena».
 - «Plataforma digitaletako laneko arriskuaren gida» (2. edizio).
 - «Plataforma digitaletako laneko arrisku espezifikoak» (2. edizio).
 - «Lantaldearen txostena: Ikuskizun publikoen muntaketa eta Autonomia erkidegoen eta LSOIN institutuaren arteko akordioa, aldi baterako ikuskizun publikoak kudeatzeko irizpide teknikoak buruzkoa».
 - «Landare-osasunerako produktuak segurtasunez erabiltzeko gida: Aplikazio-praktikorako fitxak».
- Era berean, OSALANek, 2020an, formatu digitalean berrargitaratu ditu honako hauek:
- «Prebentzioko ordezkarien oinarrizko Prestakuntza (2017)».



Haurrek eta gazteek garrantzi handia dute, etorkizuneko langileak izango baitira. Hori dela eta, dibulgazio- eta prestakuntza-ahalegin berezia eskaini diogu kolektibo horri:

- GAZTEPREBEN mikro-webgunea mantendu egin da. Bertan, laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako edukiak jasotzen dira, haurrei eta gazteei bereziki zuzenduta.
- Lanbide Heziketako ikasleen arteko dibulgazioa eta prestakuntza:
 - ADI proiektuaren esparruan, zeina FTSIrekin (Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioarekin) lankidetzan garatzen baita, lanbide-heziketako 4 ikastetxeko 180 ikasle gizonezkoak eta 176 ikasle emakumezkoak jaso dituzte prestakuntza-saioak.
 - Prestakuntza/dibulgazioko jardunaldiak egin zaizkie Lanbide Heziketako zikloetako ikasleei. Horietan, 4 ikastetxeko 34 ikasle emakumezkoak eta 57 ikasle gizonezkoak bisitatu dute Barakaldoko lurralde-zentroa, eta prestakuntza-saioak jaso dituzte.

2.1.2. Jarduera-arloa: eragileen inplikazioa eta laguntza

OSALANen lehentasunezko beste lan-arlo batean, elkarrikeria eta partaidetza sustatzen da gure autonomia-erkidegoan laneko arriskuen prebentzioan aritzen diren eragile ugarien

artean, eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundearen mezuak helarazten zaizkie herritarrei. Horrez gain, zenbait tresna eskaintzen dizkiegu herritarrei, prebentzioan lagundu dezaten eta arlo horretan inplika daitezen.

Gizartearen parte-hartzea

Herritarrek gizarte-sareetan eta web-orrian duten partaidetza % 9 igo da 2019. urtearen aldean. Bisitak, guztira, 595.078 izan dira.

Gainera, 365 jarraitzaile gehiago ditugu Twitterren, eta 108 «atsegin dut» gehiago lortu ditugu Facebooken.

OSALANek herritarrekiko interakzioa sustatzeko postontziari eusten dio, han jasotako eskariak eta kontsultak bideratzeko. 2020. urtean, kontsulta horiek nabarmen igo dira. Guztira 1.334 eskabideri eman zaie erantzuna, eta horietatik 880 COVID-19aren pandemiarekin lotuta egon dira.

Lankidetzako prebentzioko eragileekin

Lankidetzako 37 hitzarmen eta akordio ditu OSALANek sinatuta 32 entitate eta erakunderekin.

2020. urtean, lau ekitalditan parte hartu du OSALANek, askotariko instituzioek, enpresa-erakundeek, sindikatuek eta lanbide-elkarteek antolatuta.

OSALANek hiruko topagune izaten jarraitzen du, gizarte-eragile eta administrazioarekin batera, Kontseilu Nagusiaren eta horren barruan sortutako batzordeen bidez. Esparru horretan zehazten dira Erakundeak garatu beharreko politika eta ekintza nagusiak, eta horien gaineko jarraipena egiten da.

Orobat, EAEko Gizarte Elkarrizketarako Mahaian erabakitzen diren gomendioak ere jasotzen ditu OSALANeko Kontseilu Nagusiak.

Hiruko topaguneaz gain, elkarrizketa eta lankidetzatza estu eta iraunkorra du, ez soilik gizarte-eragileekin, baita prebentzioko ordezkariekin, prebentzioko erakunde espezializatuekin eta prebentzioko elkarrekin ere, horren bidez ekimenak, proiektuak eta estrategiak garatzeko interes partekatuko arloak identifikatzeko.

Elkarrizketa eta lankidetzaren adibide, OSALANek 2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala garatzen parte hartzen du, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin batera (nekazaritza, arrantza eta elikagaien politikaren arloa eta portuen arloa), eta sektorean lan egiten duten eragile sektorial, sozio-laboral eta teknologikoekin batera.

Era berean, lehen bezala orain ere, OSALANek lankidetzan dihardu Eusko Jaurlaritzako sailekin, eragileekin eta erakunde eta entitateekin, jarduera hauek egiteko laneko segurtasun eta osasunaren esparruan:

- Osasun Sailarekin eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin:
- Orpoz orpo ari dira lanean, lan-arloan COVID-19ak dituen agerraldiak prebenitzeko eta horien jarraipena egiteko. Horretarako, dibulgazioko materiala egin da, lankidetzan, eta, kasu jakin batzuetan, kasu positiboen eta harreman zuzenen jarraipena egin da zuzenean.
- Osakidetzako osasun-langileen laneko osasuneko prestakuntza sustatu da, laneko gaitasunei buruzko susmoen adierazpena bultzatzeko.
- Osakidetzako Laneko Medikuntzako Irakaskuntza Unitatearekin, barneko mediku egoiliarren/barneko erizain egoiliarren kolektiboaren prestakuntzan laguntzeko.
- Osasun Sailarekin, arau-garapenerako proposamenak egiteko.
- AZTI-Tecnaliarekin, 2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala (EuskadiPreben25) garatu ahal izateko proiektuak egiteko.
- BASKEGUREkin, egurgintzaren/basogintzaren sektorean laneko segurtasuneko eta osasuneko baldintzak sustatzeko kanpainak egiteko.
- EAEko Erakundeen arteko Mahaiarekin, Arabako Lurralde Historikoan nekazaritzako sasoikako lanaren gaineko kanpaina egiteko.
- COMSA-ENTE, OHL, DRAGADOS, ACCIONA, FERROVIAL, AGROMAN, ALTUNA Y URIA eta



- FCC enpresetako profesionalekin, «Trenbide-gainegiturak eraikitzeke lanetan arriskuak prebentzeko gida teknikoa» egiteko.
- Azpiegitura handietarako batzordearekin, laneko arriskuen prebentzioa herri-lanetan eta azpiegitura handietako obretan txerta dadin sustatzeko.
 - Enpresa handien foroarekin, enpresa handien jardueren arteko koordinazioaren egoera aztertzeke, eta esperientziak eta hobekuntza-aukerak trukatzeko.
 - Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin, fabrikatzaileek, inportatzaileek eta merkaturatzaileek makinen segurtasunari buruzko zuzentaraua betetzen dutela kontrolatzeko, horretarako dagoen lankidetzaprotokoloa garatuz.
 - PESIrekin (Industria Segurtasuneko Espainiako Plataforma Teknologikoa) eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzarekin, bide-istripuak izateko arriskua murrizten laguntzeko ekintzak garatzeko.
 - EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearekin, elkarrekin jarduteko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen, bai eta genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan txertatzen dela bultzatzen ere.
 - Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin (GSIN):
 - Desgaitasunak baloratzeko taldeen (DBT) bileretan parte hartu da.
 - Amiantoaren esposiziopean egon ahal izan diren langileen fitxategia kudeatu da, lana utzi osteko osasuna zaintzeko.
 - Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Mediku Zientzien Akademiarekin, prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileen prestakuntza gauzatu eta sustatzeko.
 - Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU):
 - EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearekin elkarlana sustatu da, erizaintzako ikasleak prestatzeko.
 - Laneko Arriskuen Prebentzioko masterrean elkarlana sustatu da.
 - FTSlrekin (Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioarekin), «ADI proiektua» garatzen, EAEko lanbide-heziketako ikasle gazteen artean prebentzioaren kultura sustatzeko asmoz, horiek baitira lan-merkatuko etorkizuneko langileak.



▼
Apirilaren 28an Laneko Segurtasun eta Osasunaren Mundu Eguna ospatzen da, LANEk babestuta. OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak eta Lan eta Justizia Sailak bat egiten dute LANEk COVID-19k sortutako pandemiaren aurkako ahalegin izugarria onartzearekin. Gizartearen estamentu guztiok egin behar diogu aurre horri, eta horregatik, egun horretan nabarmendu nahi dugu talde-lana behar dela aurrera lortzeko.



2.2. Ardatza: Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko jakintza sortu eta hedatzea

2.2.1. Jarduera-arloa: informazioa

2.2.2. Jarduera-arloa: ikerketa

2.2.3. Jarduera-arloa: prestakuntza

2.2.4. Jarduera-arloa: jakintzaren hedapena

2.2.1. Jarduera-arloa: informazioa

Informazioaren arloan, EAEko biztanleriaren laneko osasun eta segurtasunaren egoera eta bilakaera monitorizatze aldera, OSALANek honako informazio-sistema hauek kudeatzen ditu (berak garatuta):

- Laneko segurtasun eta osasuneko datuen informazio-sistema: gutxieneko datu-multzoa (GDM).
- Zerbitzu Sanitarioen eta Jarduera Sanitarioen fitxategia, bai eta auditoretza-entitate espezializatuen fitxategia ere.

Amiantoaren esposiziopean egon ahal izan diren langileen erregistroaren kudeaketa eta mantentze-lanak egiten jarraitu dugu, lana utzi osteko osasunaren zaintza bermatze aldera.

2. taula: Amiantoaren esposiziopean egon ahal izan diren langileen fitxategiaren kudeaketa (2020. urtea)

Fitxategian sartu berriak:

1.252 (1189 gizon eta 63 emakume)

Lana utzi osteko zaintza izapidetzea:

- Programara gonbidatuak: 617 (594 gizon eta 23 emakume)
- Izapidetzen: 13 gizon
- Osakidetzaren zaintzapean: 312 (295 gizon eta 17 emakume)
- Beste autonomia-erkidego baten zaintzapean: 0

KUDEATUTAKO ERREGISTRO KOPURUA, GUZTIRA:

11.389 (10.733 gizon eta 656 emakume)

Horrez gain, laneko historia klinikoaren eredia eta auditoretza-erakunde espezializatuen fitxategia ezartzen ari gara.

EAEko laneko ezbehar-tasari buruzko txostena eta gaixotasun profesionaleri buruzkoa egin ditugu, informazioaren arloan horiek ere.

Informazioa jaso dugu gure autonomia-erkidegoan gertatzen diren laneko istripu hilgarri, oso larri, larri eta anizkunetan erabakigarriak izan diren arrazoiak eta faktoreak aztertuta eta ikertuta istripu arinak ere hartzen dira aztergai, prebentzioaren ikuspegitik interesgarritzat jotzen badira.

3. taula: 2020an ikertutako istripuak

		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE Guztira
Hilgarriak	Traumatikoak	8	9	2	19
	Ez-traumatikoak	2	10	3	15
	<i>In itinere</i>		1	1	2
	Jardunean			1	1
Oso larriak/larriak	Traumatikoak			39	39
	Ez-traumatikoak	26	51	4	81
	<i>In itinere</i>			6	6
	Jardunean			5	5
Arinak	Traumatikoak	25	15	12	52
Aniztasunak	Traumatikoak			2	2
Sailkatu gabe	Traumatikoak				
GUZTIRA		61	86	75	222



Era berean, beste kausa eta faktore erabakigarri batzuk ere aztertu ditugu, honako hauen inguruko informazioa jasotzeko: gaixotasun profesionalak, lanetik eratorri izan ahal diren gaixotasunak,

gaixotasun profesionalen susmoen jakinarazpenak eta osasun-alertak. Horrez gain, gaixotasun horiek prebenitzeko azterketa egin da, bai eta bidezkoak diren zuzenketa-neurriak proposatu ere:

4. taula: Lanarekin lotuta egoteagatik 2020an ikertutako gaixotasunak

		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE Guztira
Egindako ikerketen kopurua		4	11	9	24
Egindako txostenen kopurua		4	6	9	19
Tipo de riesgo	Amiantoa				
	Agente kimikoak	2	4	5	11
	Agente fisikoak			1	1
	Agente biologikoak			2	2
	Ergonomia eta psikosoziozia	2	7	1	10
GUZTIRA		12	28	27	67

5. taula: 2020ko gaixotasun profesionalen buruzko susmoen jakinarazpenak, lurraldearen eta jatorriaren arabera

Jatorria	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE Guztira
Prebentzio-zerbitzuak	11	46	107	164
Osakidetzako osasun-zerbitzuak	25	145	61	231
GUZTIRA	36	191	168	365

2.2.2. Jardera-arloa: ikerketa

Erakundeak jorratzen dituen ikerketa-eremuetatik, arlo hauetan ari gara ikerketa-lerroak garatzen:

- Laneko istripuen zaintza epidemiologikoa.
- Ezbeharren kausa komunen identifikazioa.
- Laneko minbizia: mesotelioma, sinu paranasalen minbizia eta angiosarkoma.
- Laneko segurtasun eta osasunean eragina duten genero-faktoreei buruzko azterketa.

SAFĒRA deialdiaren eremuan egiten diren ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdia ere egin du OSALANek; SAFĒRA, zehazki, Europa adimentsu eta jasangarrirako industria-segurtasunaren eremuko ikerketan lankidetzan aritzeko talde europarra da, eta, kasu honetan, proiektuek harremana eduki behar dute Laneko Segurtasun eta Osasunarekin, erakunde honek diruz laguntzeko. Hala, honako proiektu hauek hautatu dira:

6. taula: 2020ko SAFĒRA deialdi europarraren eremuan diruz lagundutako proiektuak

Erakundea	Proiektua	Dirulaguntza
GAIKER Fundazioa	Litiozko ionen bateriaren bizi-zikloa: segurtasuneko arriskuak eta arriskuen kudeaketa lantokietan	50.000 €
BBD BIOPHENIX SL	Fluxu-baterien elektrolitoen segurtasunaren gaineko ebaluazioa	50.000 €

OSALANek emandako dirulaguntza honi esker, ikerketak egin daitezke Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako erakundeekin batera, energia biltzeko elementu seguruagoak garatzeko laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan nahiz ingurumenean; hartara, onurak sortzen dira enpresentzat, langileentzat eta, oro har, biztanleentzat.

2.2.3. Jarduera-arloa: prestakuntza

OSALANek, urtero, hainbat prestakuntza-jarduera antolatzen ditu —horretarako gaitutako eragileek ematen duten prestakuntza arautuaren osagarri—, enpresetan prebentzio-jarduerak egiteaz arduratzen diren eragileentzat:

- Prebentzioko ordezkarien prestakuntzarako dirulaguntza

**7. taula: 2020an prestakuntza jaso duten prebentzioko ordezkariak (PO)**

Lurralde historikoa	Ikastaro kopurua	PO Guztira	PO Gizonak	PO Emakumeak	Zenbatekoak (€)
Araba	14	206	141	65	28.933,32
Bizkaia	26	390	262	128	50.407,29
Gipuzkoa	17	250	192	58	39.585,53
GUZTIRA	57	846	595	251	118.926,14

- Euskadiko Laneko Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko barneko mediku egoiliarren (R4) prestakuntza: OSALANek 5 pertsona txandakatu ditu 2020an (1 Araban, 3 Bizkaian eta 1 Gipuzkoan).
- EHUrekin sinatutako hitzarmenari esker, 2020. urtean erizaintzako 3 ikaslek egin dituzte praktikak Bizkaiko Laneko Osasuneko Unitatean.
- Laneko osasunaren arloan lan egiten duten osasun-langileentzako prestakuntza.

8. taula: Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza-jarduerak

Antolatutako tailerrak	Tailer kopurua	Partaideak	Emakumeak	Gizonak
Tailerra: Laneko medikuntza, giza harremanaren garrantzia	1	35	25	10

- Erakundearen beraren barruan, aldian-aldian bilerak egin dira COVID-19aren kasu positiboen lan-harreman estuak arakatzeko orduan OSALANek dituen ekintza-prozedurei eta zalantzei buruz. Bilera horietan, Laneko Osasuneko Unitateko osasun-langileek eta hiru lurraldeetako teknikari eta administrariak parte hartu dute.
- OSALANek, gainera, hitzarmen bat du EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatearekin, Laneko Arriskuen Prebentzioko masterra bultzatzeko, ez soilik finantzaketan, baita irakaskuntza-lanetan ere; hala, masterreko 30 ikastordu ematen dituzte OSALANeko teknikariek.
- Horrez gain, OSALAN Bartzelonako Unibertsitatearekin lankidetzan aritzen da, laneko toxikologiaren gaineko graduondoan ikasleei prestakuntza ematen.

2.2.4. Jarduera-arloa: jakintzaren hedapena

Jarduera hau landa-ekintzetan eta interesdunekin zuzeneko harremanean garatzen da, eta funtsezkoa da segurtasunari eta osasunari buruzko ezagutza eguneroko lanean erabili behar dutenengana iristeko. Hala, 2020. urtean:

- OSALANek laneko segurtasunaren eta osasunaren gaineko aholkularitza eman du 799 lantokitan egindako bisitetan zehar, lantokiak irekitzeko jakinarazpena jaso ondoren, lehen sektorean, industrian, zerbitzuetan eta eraikuntzan.
- OSALANek aholkularitza eta arreta eman die enpresen, langileen, ordezkarien, prebentzio-erakundeen eta herritarren laguntza teknikoko eskari guztiei, OSALANen eskumenera inguruan.
- Tailer, ikastaro eta jardunaldi tekniko/ dibulgaziozkoak antolatu ditu OSALANek.



▼
M.^a Jesús San Jose, Lan eta Justiziako sailburua, sail honetan OSALAN atxikita dagoen, Jon Azkue, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea sailean eta Alberto Alonso, OSALANeko zuzendari nagusia, 2020ko otsailaren 28ra arte.

9. taula: Bisitatutako lantegi ireki berriak

Lurralde historikoa	Lehen sektorea	Industria	Zerbitzuak	Eraikuntza
Araba	2	13	8	565
Bizkaia		39	27	128
Gipuzkoa	1	6	53	106
GUZTIRA	3	58	88	799

10. taula: OSALANek 2020. urtean antolatutako jardunaldiak eta ekitaldiak

Jornadas y eventos
Lantegia: «Laneko medikuntza. Giza harremanaren garrantzia».
OSALANen laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko X. Udako ikastaroa. I. Zatia: «Laneko arriskuen eta COVID-19aren prebentzioa».
OSALANen laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko X. Udako ikastaroa. II. Zatia: «Lan-inguru digitala eta laneko arriskuen prebentzioa».
Laneko Psikosoziologiaren gaineko X. Jardunaldiak: «Sektore soziosanitarioko osasun psikosozialaren gaineko laneko arriskuen prebentzioa».



▼
*Lan medikuntza, giza harremanaren garrantzia
Jardunaldia (Bilbo, 2020ko otsailaren 20a).*

- Osasuna sustatzeko programen dibulgazioko materiala egin da:
 - Kirola eta lana.
 - Txandakako lanak eta gaueko lanak.
 - Enpresetan osasuna sustatzeko planak ezartzeko modua.
- Bestalde, OSALANek etxeko langileen egoeraren gaineko ezagutza sakondu du, laneko segurtasunaren eta osasunaren gainean, etxeko lanaren sektorean prebentzioa kudeatzeko materialak egin eta hedatzeko asmoz.

2.3. Ardatza: Laneko Arriskuen Prebentzioaren kudeaketa

2.3.1. Jarduera-arloa: prebentzio-jardueraren kalitatea

2.3.2. Lan-arloa: lan-baldintzen hobekuntza

2.3.3. Lan-arloa: laneko arriskuen prebentzioa kudeaketaren txertatzea

2.3.1. Jarduera-arloa: prebentzio-jardueraren kalitatea

OSALANek duen lan-ildoetako bat enpresetan laneko arriskuen prebentziorako jardueren kalitatea sustatzea da; horretarako, bitartekoak prestatzen ditu eragileentzat, batik bat enpresaburuentzat, prebentzioko ordezkari entzat eta prebentzioaz arduratzen diren erakundeetako teknikari entzat eta osasun-arloko langileentzat, zereginak errazago bete ditzaten. Hauek dira lan-ildo horrekin zerikusia duten ekimenak:

- Gidak, protokoloak, jarraibideak eta gomen-dioak, prebentzio-jarduerak garatzeko hainbat sektoretan eta diziplinan:
 - «Trenbide-gainegiturak eraikitze lanetan arriskuak prebentzitzeko gida teknikoa» prestatzen jarraitu dugu.

- Jarraibideak garatu ditugu genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzian txertatzeko.
 - Osasuna zaintzeko gida egiten ari gara agente kimikoekiko esposiziopean dauden langileentzat.
 - Prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduerak planifikatzeko gidaren agiria martxan dago.
 - Osasuna zaintzeko protokoloak egin, berri-kusi eta hedatzeko lanarekin jarraitzen dugu.
 - «Prebentzio-baliabidearen eskuliburua» eguneratzen jarraitzen dugu CANO proiektuan, Kantauri itsasertzeko erkidegoetako laneko segurtasun eta osasunerako institutuekin lankidetzan.
- Azkenik, enpresa handietako jardueren koordina-zioaren egoera aztertzeke eta prebentzio-jar-dueran esperientzien nahiz hobekuntza-aukeren trukea sustatzeko proiektu bat garatzen ari gara.



2.3.2. Lan-arloa: lan-baldintzen hobekuntza

Jarduera hauek egin ditugu arlo honetan:

2020. urtean, COVID-19aren pandemiaren eraginez, lan-arloko sektore guztietan sortu diren egoera berriak kudeatzera bideratu dira OSALANen jarduera eta baliabideetako asko, osasun-agintariekin lankidetzan. Zeregin horretan honako hauek egin dira:

- OSALANek egindako dokumentazio teknikoaren biltegia sortu eta eguneratu da, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko prebentzio-neurriak hartzeko aholkularitza emanez, jardueramota bakoitzaren arabera egokituta: fitxa teknikoak (23), jarduera eta protokoloak berriz hasteko prebentzio-gidak (16), ohiko galderen gaineko erantzunak (23), kontingentzia-plana, jardunbide egokiak, osasun-informazioa, araudia eta abar. Web-orriak 166.072 bisita izan ditu.

Dokumentazio honen 45.288 deskarga egin dira, honela banatuta:

- Jarduerak berrabiarazteko jardunbide egokiak giden deskargak: % 20.
 - Koronabirusa prebenitzeko giden deskargak: % 68.
 - Kontingentzia-plana egiteko gidaren deskargak: % 7.
 - Jardunbide egokiak, telelana: % 4.
 - Sasoiko lanen liburuxkak: % 1.
- Enpresetan ezarri behar diren kontingentzia-planen jarraipena egin da, giza baliabideen arduradunekin, kudeatzaileekin, segurtasun eta osasuneko batzordeekin eta prebentzioko ordezkariekin.
 - Neurriak gehitu zaizkio plan horri.
 - Enpresak martxan jarritako kontingentzia-plana berrikusi da, eta hura hobetzeko proposamenak egin.



- Langile soziosanitarioen probak eskatu eta emaitzak jakinarazteko ezarritako zirkuituak kudeatu eta kontrolatzeko lankidetzaz ezarri da.
- Dibulgazio-jarduerak egin dira gizarte-eragileen eta prebentzio-zerbitzuen artean, OSALANek egindako jarraibideen gainean, edo osasun-agintariek langileen talde desberdinen artean pandemia era egokian kudeatzeko ezarritako jarraibideen gainean.
- OSALANeko langile ugari (lan-osasunaren arloko eta arlo teknikoko teknikariak eta administrariak) bideratu dira langile autonomoen, ontzietako tripulazioaren eta sasoikako langileen artean egondako kasu positiboak eta harreman estuen jarraipen eta kontrol integrala egitera.
 - Mahats-bilketako kanpainako langileak: 2.918 PCR proba diagnostikoren kudeaketa eta jarraipena egin da.
 - Ontzien tripulazioa: 300 PCR proba diagnostikoren kudeaketa eta jarraipena egin da.
- Mahats-bilketan lan egiten duten pertsonen COVID-19ari buruzko informazioa eta prestakuntza emateko hainbat ekintza egin dira.
- Pandemiarekin lotuta Tramitaguneraren bidez jasotako laneko segurtasun eta osasuneko 880 kontsulta teknikori eman zaie erantzuna, eta teknikariek 1.800 inguru kudeatu dituzte posta korporatiboaren bidez eta 4.000 baino gehiago telefonoaren bidez.
- Haragi-industriaren baheketan parte hartu da, 85 enpresetan esku hartuz, 1.317 langile tartean izanik.
- Koronabirusari aurre egiteko etengabeko jarraibideak zabaldu dira prebentzio-zerbitzuen eta LagunAroren artean, balizko kasuen, ustezko kasuen edo berretsitako kasuen harreman estuak bilatzeko.
- Prebentzio-zerbitzuekin batera, norbera babesteko ekipamendu-premien jarraipena egin da egoitzetan, ambulanzietan eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuetan lan egiten duten langileen artean. OSALANen Kontseilu Nagusiaren barruan ere sustatu da neurri hori, eta gizarte-eragileen lankidetzaz garrantzitsua eduki du: Confebask, Konfekoop, CCOO eta UGT.
- COVID-19ari aurre egiteko kontingentzia-planen garapeneren gaineko jarraipena egin da bereziki zaurgarriak diren 350 enpresatan, lankidetzaz jardunda enpresetako giza baliabideen ardura-dunekin, kudeatzaileekin, segurtasun eta osasuneko batzordeekin eta prebentzioko ordezkariekin.
- OSALAN – COVID-19 postontzia sortu da.



- 12 langile kontratatu dira langile propioak indartzeko COVID-19aren pandemia kontrolatu eta jarraipena egiteko zereginetan.

Enpresei arrisku psikosozialaren prebentzioaren gaineko aholkularitza eta laguntza teknikoa ematen jarraitu da.

2.3.3. Lan-arloa: Laneko arriskuen prebentzioa kudeaketaren txertatzea

OSALANek arreta berezia ematen die laneko arriskuen prebentzioa beren enpresa-kudeaketan txertatzeko arazo gehien dituztenei (hau da, enpresa txiki eta ertainei) eta prebentzioarekiko behar bezain jarrera irekia ez duten sektoreetako enpresei, hala nola lehen sektorekoei eta eraikuntzakoei. Alde horretatik, jarduera hauek egin ditugu:

- 2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala garatzen laguntzen du OSALANek. Testuinguru horretan, lehen sektoreko hainbat kanpaina egin dira.
 - Lehen sektorean laneko arriskuen prebentzioa txertatu dadila sustatzeko, OSALANeko teknikariek hainbat bisita egin dituzte sasoikako langileen 2020ko kanpaina sartutako ustiatzeari, 30 enpresatan eta 16 erakundetan. Guztira, 120 bisita egin dira.
 - Enpresa errematatzaileetara (egurra) bisitak egin dira, informazioa biltzeko. 15 bisita egin dira ustiapenak aktibo dituzten enpresetara.
- Arabako nekazaritzako langileen osasunaren zaintzaren kalitatea hobetzeko asmoz, osasunaren zaintzarako ikerketa bat egiten aritu gara Arabako Lurralde Historikoko nekazaritzaren sektoreko enpresetan.
- Prebentzioa sustatu dugu lehen sektorean diharduten langile autonomoen eta enpresa txiki eta ertainen artean, laneko segurtasunaren eta osasunaren alorreko alderdi arazotsuenak nabarmentzeko. Ekintza hauek gauzatu ditugu 2020. urtean:
 - 2019. urtean laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeari buruz egindako materiala OSALANen webgunean editatu eta egokitu dugu.
 - Indarrean dauden laneko segurtasun eta osasunerako arauak enpresa txikietan aplikatzeko prozesua hobetzeko hasitako ikerketa egiten jarraitu du OSALANek. Ikerketa horren ondorioetan oinarrituta, mota horretako enpresentzako aholkularitza-kanpainak egingo ditu erakundeak.
- Organo eskudunekin lankidetzak ekintzak garatu dira, laneko arriskuen prebentzioa herri-lanetan eta azpiegitura handien lanetan txertatzeko asmoz.

2.4. Ardatza: Administrazio Publikoak

2.4.1. Lan-arloa: administrazioen arteko koordinazioa

2.4.2. Lan-arloa: erakundeen arteko lankidetzak

2.4.3. Lan-arloa: OSALANen zerbitzuak eta prozesuak

2.4.1. Lan-arloa: administrazioen arteko koordinazioa

2020. urtean, 2021-2026ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia egiteko lidergoa hartu du OSALANek. Horretarako, EAEn laneko segurtasunaren eta osasunaren egungo egoeraren diagnostikoa egiten aritu da, eta strategiaren barruan garatu beharko diren helburu estrategikoak eta operatiboak prestatzen.

Laneko arriskuen prebentzioan eskumena duten administrazio eta agintaritzak eskudunen koordinazio, aholkularitza eta laguntza teknikoaren alorrean, OSALANek jarduera hauek egin ditu 2020an:

- Lan-agintaritzarekin elkarlanean aritu da amiantoak duten materialak kentzeko lanen kontrolean.

- Osasun Sailarekin lankidetzan aritu gara, oinarrizko irizpideak eta garapen-arauen proposamenak ezartzeko.

**11. taula:** Amiantoa duten materialak kentzeko aurkeztutako lan-planei egindako kontrola (EAE, 2020)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE Guztira
AURKEZTUTAKO PLANAK				
Espezifikoak	116	299	255	670
Orokorrak	7	32	14	53
Ondorengoak	39	0	3	42
Total planes presentados	162	331	272	765
Lan-plana aurkeztu duten enpresen kopurua	21	37	34	92
ONARTUTAKO PLANAK				
Espezifikoak	105	264	230	599
Orokorrak	5	16	7	28
Ondorengoak	34	0	3	37
Onartutako planak, guztira	154	280	240	674
EGINDAKO BISITAK				
Txostena egin aurretik	3	12	37	52
Egiaztapena	116	10	31	157
Egindako bisitak, guztira	119	22	68	209

- Osasun Sailarekin lankidetzan aritu gara, prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueraren kontrol-eginkizunak betez, hala Prebentzio

Zerbitzu Propioak (PZP), nola Kanpoko Prebentzio Zerbitzuak (KPZ) direnean. Hauek izan dira emaitzak:

12. taula: Eskumenak garatzea prebentzio-zerbitzuen baimen sanitarioari eta kontrolari dagokienez

Jarduera	PZP	KPZ	
Baimen sanitarioa: instalazioen ezarpen, funtzionamendu, aldaketa, berritze eta kentzea nahiz langileak aldatzea	Jasotako eskaerak	13	50
	Egindako txostenak	14	27
	Egindako errekerimenduak	2	17
Ofiziozko jardunak: instalazioak baimendu, aldatu, berritu eta kentzeko nahiz langileak aldatzeko prozedurei buruzkoak	Hasita	5	26
	Egindako txostenak	6	19
	Egindako errekerimenduak	6	30
Lankidetzeta- edo azpikontratazio-espeditentek	Lankidetzeta-eskaerak	0	4
	Egindako txostenak	0	1
	Egindako errekerimenduak	0	6
	Azpikontratazio-eskaerak	4	0
	Egindako txostenak	1	0
	Egindako errekerimenduak	5	0
Farmazia-prestazioa	Izapidetutako eskaerak	1	0
Auditoretzak	Jasotako eskaerak	0	
	Egindako txostenak	0	



- Osasun Sailarekin lankidetzan aritu gara garrantzi handiko proiektuen garapen eta ezarpenean. Hauek dira proiektu horiek, besteak beste:
 - Gutxieneko Datu Multzoa (GDM).
 - Laneko historia klinikoaren eredu.
 - Gaixotasun profesionali buruzko susmoen komunikazio-sistema.
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin lankidetzan aritu gara, fabrikatzaileek, inportatzaileek eta merkaturatzaileek makinaren segurtasunari buruzko zuzentaraua betetzen dutela kontrolatzeko, egungo protokoloari jarraituz.



▼
Idoia Mendia, Lan eta Enpleguko sailburua, sail horretan OSALAN atxikita dagoen; Lourdes Iscar, OSALANeko zuzendari nagusia; eta Jon Azkue, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea.

- Lan-agintaritzak eskatuta, kanpoko prebentio-zerbitzuek ziurtapen-baldintzak betetzen dituztela kontrolatu dugu eta Prebentzio Zerbitzu Mankomunatua sortu dela ikuskatu, lan-agintaritzak hala eskatuta.
- Herri-lanen eta azpiegitura handien alorrean, jarraipena egin dugu jarduera horiei dagozkien laneko arriskuen prebentzioari buruzko lurralde-esparruko erakundeen arteko batzordeetan, bertan direla lan- eta meatzaritza-agintariak, foru-aldundiak, arlo honi lotutako enpresa publikoak, Lan Ikuskaritza eta OSALAN. Batzordeek 2 bilera egin dituzte, eta baterako 32 bisita egin dira.
- EMAKUNDErekin lankidetzan aritu gara, genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzian txertatzeko, eta lan-ingurunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.
- OSALANen jaso diren Laneko Osasuneko Unitatearen eskumen-esparruari dagozkion salaketak aintzat hartu ditugu, unitate hori baita prebentio-zerbitzuetako osasun-zerbitzuen agintaritza.

13. taula: OSALANen 2020an jasotako salaketak

Salaketak, osasun-agintaritza	26
Ofiziozko jarduerak	12
Txostenak	34
Aktak	4
Zehapen-espedienteak	0

- Laneko, osasuneko eta justiziako agintaritzen laguntza teknikoko eskariak eta laneko ikuskaritzarenak artatu ditugu.

14. taula: Laneko, osasuneko eta justiziako agintaritzen laguntza teknikoak jasotzeko 2020an egindako eskaerak

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Total
Egindako txostenen kopurua	65	41	114	220

2.4.2. Lan-arloa: arakundeen arteko lankidetzaz

COVID-19aren pandemiaren ondorioz, erakundeen arteko lankidetzaz, ezinbestean, berezia izan da maila guztietan. Zehazki, honako hauek izan dira lankidetzaz-jarduerak nagusiak:

- Lankidetzaz aritu gara Osasun eta Lan eta Enplegu Sailekin, eta Osakidetzaz-Euskal Osasun Zerbitzuarekin, lan-arloan Covid-19aren pandemia kontrolatzeko lanetan:
 - Lan Sailaren krisi-kabinetean parte hartu dugu.
 - Lankidetzaz aritu gara Osakidetzarekin eta Osasun Publikoarekin, langile soziosanitarioei PCR probak egiteko prozedura kudeatzen (egoitzak eta etxeko laguntza).
- COVID-19aren pandemiaren aurrean jarduteko protokolo eta jarduerak berrikusi ditugu, Eusko Jaurlaritzako honako Sail hauekin koordinatuta:
 - Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena.
 - Lan eta Enplegua.
 - Osasuna.
 - Kultura eta Hizkuntza Politika.
 - Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa.
 - Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak.
- «Euskadin COVID-19aren pandemian ezarritako konfinamendua arintzeko fasean kasuak eta harreman estuak kontrolatzeko eta zaintzeko» planean parte hartu dugu, lan-arloko koordinazio-eginkizunak betez, erakunde hauen lana bideratzeko: Osakidetzaz, Osasun Saila, prebentzio-zerbitzuak, enpresak eta denetarikoa jardueraz- sektoreetan inplikaturako Eusko Jaurlaritzako sailak.
- Lankidetzaz aritu gara Osasun Sailarekin, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapeneko Zuzendaritzarekin.



kin, Arabako Aldundiarekin, Osakidetzarekin eta upeltegi-jabeen elkarteekin, mahasti-bilketan lan egiten duten kolektiboen artean COVID-19aren pandemiarekin lotutako prebentzio-jarduera guztiak koordinatzeko.

- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arrantza Zuzendaritzarekin lankidetzan aritu gara, Atlantikoko eta Indiako ozeanoetan arrantza-lekuetatik iristen diren marinelen kasuen jarraipena egiteko.
- Osakidetzarekin lankidetzan aritu gara, gripearen txertaketa kudeatzeko, prozesu hori prebentzio-zerbitzuetan kudeatuz.
- Bestalde, lankidetzan aritu gara Lan Ikuskaritzaarekin eta Lan Zuzendaritzarekin, kanpoko prebentzio-zerbitzuek jakinarazitako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei buruz (ABEEE) informazioa trukatzeko eta horien gainean lan egiteko, ezinbesteko lanabestzat jotzen baitira krisi honi aurre egiteko.
- Prebentzio-zerbitzuei zuzendutako protokoloak egin eta gainerako autonomia-erkidegoekin eguneratu ditugu, Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Osasun Publikoko Batzordearen laneko osasunari buruzko batzorde txostengilean.

Beste arlo batzuetan, lankidetzajarduera nagusiak honako hauek izan dira:

- Toki-administrazioarekin lankidetzan aritu gara; hain zuzen ere, OSALANek laguntza teknikoa

eman die udalei, udalerrietako eraikinetan eta instalazioetan amiantoaren duten materialak identifikatu eta kudeatzeko. Alde horretatik, Erakundeak amiantoaren duten materialen udal-inbentarioak egitea bultzatu du, bilerak egin ditu udalekin, eta aholkua eman die.

- Lankidetzan aritu gara Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin, eskumenak baititu laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak aitortu eta konpentsatzeko; hartara, kide titular moduan egon gara desgaitasunen balorazio-taldean (DBT) 9 bileratan.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin sinatutako amiantoari buruzko hitzarmena garatu eta haren jarraipena egin dugu.
- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalaren osoko bilkuretan parte hartu dugu, bai eta organo horren baitan sortutako batzordeetan eta lantaldeetan ere.
 - Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionaleko Komitea.
 - Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionaleko lantaldea.
 - Suteak prebenitu eta itzaltzeko 2015-2020ko laneko segurtasun eta osasuneko estrategiaren azpi-lantaldea.
 - Amiantoaren lantaldea.
 - Eraikuntzako lantaldea.
 - Estalkien gaineko lanetako azpi-lantaldea

- Altueran egindako aldi-baterako lanen azpi-lantaldea.
- Nekazaritzaren sektoreko lantaldea.
 - Nekazaritzako makinen azpi-lantaldea.
- Nahasmendu muskuloeskeletikoen lantaldea.
- Bide-segurtasuneko lantaldea.
- Laneko arriskuen prebentzioko hezkuntza eta prestakuntzako lantaldea.
- Arrantzaren itsas sektoreko lantaldea.
- Ikuskizun publikoen lantaldea.
- Ikuskizun publikoen muntaketako lantaldea.
- Eraikuntzako ohiko galderen lantaldea.
- Ustiapen profesionaleko mugen lantaldea.
- Bazkide moduan parte hartu dugu SAFERA ekimen europarrean, industriaren segurtasunean ikertzeko eta hazkunde jasangarria eta adimentsua izateko.
- Gaixotasun Profesionalaren Susmoaren Batzordean parte hartu dugu, Mediki Ikuskaritzekin, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin, Gizarte Segurantzako mutua lankideekin eta Osakidetzako Plangintza Zuzendariordearekin lankidetzan.
- UNEren Normalizazioko Batzorde Teknikoetan (NBT)-Normalizazioko Espainiako Elkartearen parte hartu dugu:
 - 81 NBT Laneko segurtasuna eta osasuna: babes kolektiboko bitartekoak.
 - 06 Lantaldea: segurtasun-sareak jorratzen.
 - Lantaldea: ertza babesteko behin-behineko sistemak.
 - 81 NBT Laneko segurtasuna eta osasuna: agente kimikoak ebaluatzea.
 - 311 NBT Entretenimenduaren industria.
 - 180 NBT Altuerako aldi baterako lanetarako ekipamenduak.
 - 171 NBT Giro-kalitatea barnealdeetan.
 - Amiantoaren lantaldea.
- ISO-Normalizaziorako Nazioarteko Erakundearekin lankidetzan aritu gara:
 - ISO/ 283 Batzorde Teknikoa - 2 Lantaldea. Arrisku Psikosozialen Kudeaketa ISO 45001aren barruan.
 - ISO/ 283 Batzorde Teknikoa - 3 Lantaldea. ISO 45001 Araua aplikatzeko gidak.
 - ISO/ 283 Batzorde Teknikoa - 5 Lantaldea. Gaixotasun infekziosoen kudeaketa.
- Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutu Nazionalarekin lankidetzan aritu gara, honako lantaldeen lanean:
 - Muga-balioen lantaldea.
 - BASEQUIM lantaldea.
 - Espainiako nanomaterialaren balizko esposizioaren lantaldea.



Era berean, OSALANek honako batzorde eta komite hauetan ere parte hartu du:

- Gaixotasun profesionalei buruzko susmoen komunikazio-batzordea.
- Azpiegitura handien obra publikoan laneko arriskuen prebentzioaren jarraipena egiteko batzordea.
- Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua.
- EAEko Datu Espazialen Azpiegituraren sailen arteko batzordea.
- Laneko Jazarpenaren Euskal Behatokia.
- 2020-2021 aldirako, sustantzia arriskutsuak tartean dituzten istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeko Zuzentarauaren (2012/18/EB) arabera ezarritako agintaritzaren eskudunen 54 C14000 Komiterako (Europako Batzordekoa) ordezkari-tza autonomikoa.

2.4.3. Lan-arloa: OSALANen zerbitzuak eta prozesuak

OSALANek bere barne-prozesuak eta herritarrei zuzendutako zerbitzuak hobetzeko lanean jarraitzen du, 2020an barrena egindako honako jarduera honekin:

- OSALANeko artxiboak EAEko administrazio orokor eta instituzionaleko artxiboko sistemara egokitzea.
- Analisi Higienikoen Laborategiak emandako zerbitzuekin jarraitzen dugu.
- Aurrekontuaren betearazpen-mailaren jarraipena egiten dugu.

15. taula: Analisi Higienikoen Laborategiak 2020an emandako datuak

	Txostenak	Zehaztapenak
Kalitatearen kontrolerako egindakoak	22	278
Kanporako egindakoak	184	1.808
Guztira	206	2.086
Zenbat prebentzio-zerbitzuek eskatu duten analisia		11

16. taula: 2020ko gastuak eta diru-sarrerak

Gastuak	€	Diru-sarrerak	€
Langile-gastuak	9.841.800	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	17.280
Funtzionamendu-gastuak	1.306.540	Transferentziak eta dirulaguntzak. Gastu arruntak	11.698.800
Finantza-gastuak	0	Ondarearekin lotutako diru-sarrerak	0
Transferentziak eta dirulaguntzak. Gastu arruntak	1.183.900	Finantza-aktiboen murrizketa	9.100
Gauzatutako inbertsioak	113.280	Kapital-eragiketetarako transferentziak eta dirulaguntzak	717.706
Finantza-aktiboen igoera	0		
GUZTIRA	12.445.520	GUZTIRA	11.725.180



▼ OSALANeko Kontseilu Nagusiaren bilera (2020ko ekainaren 10ean), Jon Azkue Laneko eta Gizarte Segurantzako sailburuordea dela.



- Datu pertsonalak babesteko politika, informazio-sistemak eta kudeaketa dokumentala ezartzeko prozesua garatu dugu.
 - OSALANen Euskara Normalizatzeko Plana garatu dugu (VI. Plangintza-aldia, 2018-2022).
 - 2020. urtean, batez ere COVID-19ari buruz argitaratutako material guztiaren euskarazko bertsioan egin dugu lan.
 - 2019ko jardueren memoria eta 2021eko kudeaketa-plana egin eta zabaldu ditugu.
 - Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan txertatzeko ekintzak garatu ditugu:
 - OSALANen web-orrira egokitu dugu laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko ikus-entzunezko materiala.
 - Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeko 4 irakaskuntza-ordu eman ditugu.
 - OSALANeko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Plana betearazi eta haren jarraipena gauzatu dugu (2018-2021):
 - PGEN 21 galdetegia eta OSALANeko aurrekontuaren gaineko eraginaren txostena egin ditugu.
 - Materialak prestatu ditugu, eta lanbide-heziketako ikasleen sentsibilizazioan parte hartu: 5 saio egin dira, 34 ikasle emakumezko eta 57 ikasle gizonezko zuzenduta. Horietan, 9 irakasle emakumezko eta 4 irakasle gizonezko parte hartu dute.
 - Generoari eta laneko segurtasun eta osasunari buruzko prestakuntza-modulua diseinatu dugu.
 - OSALANeko langileek 173 ikastordu jaso dituzte berdintasunarekin lotutako hainbat ikastarotan.
 - Bestalde, OSALANek herritarrekiko zerbitzuak informatizatzeko prozesua hobetzeko ahaleginean jarraitzen du. Aurten, aurrera egin dugu espedienteen izapidetze elektronikoan eta administrazio elektronikora sartzen diren zerbitzuen katalogoa handitzeko lanean.
 - Era berean, OSALANek autobabeseko plana instalazioen egituraren arabera egokitu eta eguneratu du.
 - Horrez gain, bere instalazio eta ekipamenduak berritzeko prozesuan dago, eraginkortasun energetikoa hobetze aldera.
- Azkenik, pandemiaren urtea amaituta, aurrez aurrekoa ez den lanaren eta telelanaren potentziala ikusi ahal izan dugu: abantailak, mugak, kostu ekonomikoak, langileentzako ondorio pertsonal eta familiarrak... Ondorioz, datorren urterako, ondo aztertu beharko dira gai horiek guztiak, gure zerbitzuen kalitateari eutsi ahal izateko.